



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

575. zkia.
XIV. urtea
2006ko ekainaren 9a



Tanbor hotsekin datoz Trinitate Jaiak

Belaustegi
Baserria



JATETXEA



7. urteurrena



Menu berezia

Ekainaren 9tik 18ra

Foie-moussesa bere konpotarekin eta modenako ozpinarekin

Bieira arrainarekin gratinatua

Otarraixkak plantxan

Txangurroz beteriko legatza itsaski saltsarekin

Txerri iberikoaren masaila hostorean



Idiazabalgo gazta-tarta fruta izozkiarekin



Edaria eta kafea 38 € (+bez)

(Astebunuan edaria ez dago berriz)

Eskerrak guztioi!

San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02



UXUE ALBERDI



IMANOL LARRAÑAGA

ZOZOAK BELEARI...

Arratsalde on, Txino!
Ba al dakizu mina batek zer soinu egiten duen lehertzean? Nik ez, baina istorio bat kontatuko dizut:

Duela ez hainbeste urte, hemendik oso gertu, Markinan, gizon asko goiz jaiki eta lanera joaten ziren buzoa jantzita, tailerre-
ra. Batek pieza bat jartzen zuen, beste batek hurrengoa, eta gero etxera joaten ziren, bazkaltzera.

Orain, Kurdistanen, ume batek ezin du bazkaldu ez daukalako besorik koilara ahora eramateko. Izan ere, Txino, Markinan egiten ziren Siria eta Turkiaren arteko mugan dauden mina asko eta asko.

Mugaren alde banatako kurduak ez dute elkarrekin egoteko aukerarik Markinan egindako mina haiek medio. Hankak lehertzen dizkiete saiatuz gero, edo besoak.

Urtean behin uzten diete elkarrekin hitz egiten, 400 metroko distantziara jarrita, altabozekin: erdian milaka mina, Markinakoak.

Minak Markinan egiten ziren. Non egiten dira altabozak? Bruselan?

Turkia da Europar Batasunean sartzeko hurrengo estatua. Horixe emango diete kurduei? Urtean behin hitz egiteko aukera?

Turkia hiltzailea da, eta gu konplize. Ohartu gaitezen zer tailerretan ari garen. Boom. Hanka bat gutxiago. Lasai, inork ez du entzun.

«Badakizu mina batek zer soinu ateratzen duen lehertzean?»

UXUE

«Ez dut mina batek ateratzen duen zaratarik inoiz entzun»

IMANOL

Haserre sumatzen zaitut Kurdistanetik bueltan, Uxue. Minek eragindako mina ikusten dut zure berben atzean. Haietako bat barruan lehertu zaizula dirudi. Sutan jarri zaitu, gainera, minak gurean egindakoak zirela jakiteak. Hemen ere txakurrak hanka-hutsik ibiltzen dira, Uxue. Baina, ondo pentsatuta, konponduko al litzateke ezer minak hemengoak izan beharrean beste lekuren batean egindakoak balira? Gure kontzientziak, akaso? Non egindakoak ziren Irakeko lau umetxoak etxean zeudela tiroz hil zituzten armak?

Zorionez ez dut mina edo bonba batek ateratzen duen zaratarik inoiz entzun. Baina, begiak itxiz gero, mina hankapean hartu zuen umearen garrasiak entzuten ditut. Begiak ixten baditut, bederatzi hilabete-
teko umea tiro egin behar dion soldaduari begira ikusten dut; eta haren negar zotinak entzuten ditut. Eta tiro hotsa ere bai. Tiro hotza. Begiak tapatuz gero, mundua beltz ikusten da, Uxue.

Baina, lasai. Entzun dut Pentagonoak formazio ikastaroa eskaini behar diela soldadu estatubatuarrei, gerran daudenean zelan portatu behar duten jakiteko. Etxe Zuriko agintariak gerrako etika eta baloreak zabaldu nahi dituzte soldaduen artean. Biba! Zelako ondo! Aurrerantzean soldaduak bata zuria jantzita irtengo dira gerrara. Biblia besapean dutela. Eta gaiztoak direnei bakarrik egingo diete tiro.



DESARME-KONFERENTZIAK SUTEEN KONTRAKO PIROMANOEN
ARIKETAK DIRA



John Osborne

Zein eginkizun eta betebeharrak dituzte politikoak?

Duela hiru hilabete hasi ziren Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiten garai batean Gabilondo y cia. ama enpresa zegoen lurretan (egun Ubitarte Buru izenez ezagutzen da). Laneko makinak eraman eta obrak bi hilabete geldirik egon ostean, Santa Ana eta Ubitarte kaleko bizilagunak kezkatuta gaude, lurzoru horiek kutsatuta egon daitezkeelako.

Maiatzaren 8an udaletxeko Hirigintza Sailera jo nuen, Migel Anjel Mujika hirigintza sailburuarekin hitz egiteko. Gizon honen aginduak betetz, berarekin egoteko eskaria eta nire galderak idatziz bidali behar nituela esan zidaten Hirigintza Sailean. Hilaren 9an eraman nituen nire galderak eta maiatzaren 15ean Migel Anjel Mujika Larreategi jaunak sinatutako eskutitz bat jaso nuen. Honela dio: "Udaletxea ez da ari obra horiek egiten, Ubitarte Buruko obren arduraduna VISESA da. Udaletxe honek ez du oraindik inolako jakinarazpenik jaso lurren kutsaduraren inguruan, eta ezta, obra geldirik egotearen arrazoiak gainean ere. Beraz, momentuz ezin ditugu zure galderak erantzun".

Erantzun honen aurrean, ingurune honetako bizilagun bat obrara gerturatu zen eta bertan lanean ari zen geologoak esan zionez, fuel depositu batzuk agertu

dira lurra zulatu dutenean eta lurra erabat kutsatuta dagoela gaineratu zuen. Hala ere, lasai egoteko esan zion, bizilagunaren osasunari ez diola eragiten.

Mujika jaunak: ordutegi bat eta soldata bat daukazu gure udaletxean. Noren ardura da hemen gertatzen denaz informatu eta herritarrei jakinaraztea Hirigintzako arduradunarena ala bizilagunena?

AMAIA MARTINEZ DE BUJO

EHNA tramitatzeko eguna Elgoibarren

Euskal Nazioko partaideak garelako adierazteko sortu zen orain dela urte batzuk Euskal Herriko Naziotasunaren Agiria. Udalbiltzak jarri zuen martxan eta Elgoibarren 700 pertsonatik gora gara jada, agiri horren jabe.

Momentu garrantzitsuak bizi izan ari gara. Une hauetan euskal heritarrok gure ekarpenak egiteko une ezin aproposagoak. Eta EHNA ez daukanak eskuratzea eta daukagunok erabilitea izan daiteke ekarpen horietako bat. Elgoibarren oraindik jende asko dagoenez EHNArik gabe, bihar larunbata, goizeko 11:00etatik aurrera Elgoibarko Plaza Handian izango gaituzue tramiteetan laguntzeko prest.

Bestalde, hilaren 11n Naziotasun Eguna izango da Balmasedan. "EHNA

erabiliz Euskal Herria eraiki" lelopean hainbat ekitaldi antolatuko da herri bezala pentsatu, gozatu eta pausoak ematea sustatu nahi dugulako. Egoera politikoak denon partehartzea eskatzen du. Beraz, animatu eta parte hartu.

ELGOIBARKO EHNA BATZORDEA

Elgoibarko Topagunearen eskertza

Lehenik eta behin Topagunearen sorreran parte hartu duzuen guztioi eskerrik beroena. Mila esker lbaetako manifestuko eskubide taularen eta euskal presoek Euskal Herriratzearen aldeko sinadura eta babesa adierazi duzuen talde zein norbanakako guztiei. Eskerrik asko, hala nola, Topaguneari lortu duen izaera zabal eta anitza izaten lagundu duzuenoi. Izan ere, horixe baita egitasmo honen gakoetariko bat: aniztasuna. Eta horren erakusle garbiena Topagunearekin bat egin duten herriko esparru ezberdinetako taldeak eta ekaineko lehen asteburuko bi ekitaldi nagusietako partehartzea dira.

Baina hau hasiera besterik ez da eta lista nahiko goian jarri izanak lanean jarraitzeko bultzada sendoa suposatzen dezan deia luzatzen dizuegu heritar guztioi gurekin bat egin dezazuten. Topaguneko atak irekita dituzue. Euskal preso politikoak ere gatazkaren parte direlako, beraien eskubideak onartzeak konponbide demokratiko desiratuen bidean pausu garrantzitsua suposatuko duelako, zatoz zu ere!

ELGOIBARKO TOPAGUNEA

E-POSTA


barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZALEAK Elgoibarko Udala **KAZETARIK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBlizATZEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETAZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Uxue Alberdi, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Alain Ulazio, Aloitx Vives, Kokoe KE, Uruzuna, Unai Villena, Aloitx Vives **ESABA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburuk **INPRIMATEGIA** Gertu **TRADA** 4.500 ale **LEGE GORDAILLA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

• Urasandi auzora igotzeko errebueltan dagoen metalezko xafla oso arriskutsua da: "Kalamua kaleko etxebizitzan azpian garajeak egin dituzte, eta garejeen sarrerarako bidea egokitu egin behar izan dute. Obrak amaituta daudela dirudi, baina errepi-dean metalezko xafla handi bat jarri zuten eta oraindik bertan darrai. Oso arriskutsu dago eta kentzea komeni da. Errebuelta oso arriskutsua da eta gidari asko, xafla ez zapaltzeagatik beste karrilera pasatzen dira, kontrako norabidean autorik datorren ala ez jakin gabe. Ezer larririk gertatu aurretik, dena lehen zegoen bezala jartzea komeni da".

TXALOAK

• Ikastolako ikasle eta gurasoek Ikastolaren Eguna antolatzen lagundu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete: "Nava, Goki erreformak, Lanbroa, Iriondo, Txiriboga, Orbea eta Jai-Alai tabernak, Julito Bueno, Armueta eta Domiko harategiak, Eroski Center, Eroski bidaiak. Nafarroako Rural Kutxa, Gabi eta Aterpe jatetxeak, Dori urdaitegia, Altzolako Urak, Bankoa. Bestalde, jaialdian parte hartu zuten herritarrek eskertu nahi ditugu, guztion presentziaz egun bikaina pasatu genuelako. Eskerrak baita DBH3. mailako ikasleei, lan mordoan egin zutelako".

• Ramon Mujika, Kirol Patronatuko zuzendariari eskerrak eman nahi dizkiote: "50. jubilatuta eta bi laguntzailek Donostiako La Perla Talasoterapiara egin genuen irteera, eta Ramon Mujikari esker dena primeran ateratu zen. Berak antolatu zigun dena, autobusta, talaso-zirkuitoa, bazkaria... egun bikaina pasatu genuen".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12

komikia

Hil da gero...



Kokoe 062

Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

Eta aurrera begira, zer?

50 urtean zeregin batean jardutea ez da makala, baina pasatutakoa pasatuta dago, eta esacerak dioen bezala, "atzeak erakusten du, nola dantzatu aurrea".

Beraz, guk, euskaltegietakook, aurrera egin behar dugu, oraindik ere badugulako zeregin franko, gure herriko biztanleok normaltasun osoz euskaraz bizi gaitezten. Bide honi jarraipena emateko, hiru arlo hauek aintzatetsiko ditugu:

Lehenengoak *elkarlana* du ardatz, eta horretan, besteak beste, honako hauek ezinbestekoak dira:

Euskaltegi bion artean egitasmoak lantzea, lehiaz haratago, interes konpartituak bilatuta; Udal, ikastetxe, sindikatu eta abarrekin sustapen lanak egitea; EBPNren garapenean eragile izatea; Udalak ematen dituen laguntzen bermea izatea; Administrazioarekin ratioei, modulazioei eta kurikulumari buruzko malgutasuna bilatzea.

Bigarena, etorkizunean sortuko diren *erronkei* ahalik eta ondoen *erantzutea*: lan, osasun, irakaskuntza eta transmisio arloetan pausu batzuk eman badira ere, normalizazioa lortzea; euskaldun zaharrak euren burua jantzi beharraz ohartaraztea; eskaera modularrei eta xede berezikoei behar duten asetasa ematea; etorkinak lehen-tasun esparrutzat hartzea; ikas-irakas prozesuan teknologia berriak txertatzea (Autoikas-kuntza, Boga; lk@sgela...); mailak egiaztatze-ko homologazio sistema lortzea; ezagutzatik erabilerarako bideak eskaintzea, ...

Hirugarrena, eta aurreko biek aurrera egin dezaten, motorra garen euskaltegietakoko *irakasleon baldintzak* hobetzea, bai formazio alde-tik, bai ekonomikoki,...

Hau guztia egiteak, ez dakigu beste 50 urte eskatuko dizkigun, baina batzuk, behintzat, bai. Guk mendi punta ikusi ikusten du-gu, baina bertarako bidea denon artean eginez gero, askoz ere errazagoa izan-go da. Izan ere, tontorrera iristea denon zeregina da, *euskara* denona delako.

80.hamarkadan zegoen egoerarekin konparatuta, gauzak hobetu dira, baina oraindik ere euskaltegiok, aurrera begira badugu zer egina.

Ezagutza / Erabilera

Euskarak esparru eta maila berriak irabazi ditu eta euskararen erabilera hedatzen ari da etxetan, gizartean, komunikabideetan, administrazioan, merkataritzan, lan munduan eta abarretan. Baina erabileraren hazkuntza hori ez da izaten ari ezagupenaren adinakoa. Gure gizartea benetan elebidun izatea nahi badugu, beraz, ezinbestekoa izango da euskararen erabileran aurrerapauso sendoak ematen jarraitzea.

Motibazioa eta sentsibilizazioa

Badago zeregina, instituzioen aldetik eta baita gure alde-tik ere, euskara ikasteko eta euskarara erakartzeko kanpainak antolatuz, euskarak egoera eta esparru guztietarako balio duela erakutsiko dutenak.

Atzeritarrak eta euskara

Azken urteotan, makina bat etorkin etorri da Afrika, Hego Amerika edo Ekialdeko Europatik Euskadira, hemen bizitzen gelditu eta gizarteratzeko asmoz. Egoera soziologiko horrek erantzun aproposa izan dezan, beharrezkoa da neurri egokiak hartzea euskararen irakaskuntzan.

Sektore desberdinetara hurbiltzea.

Merkataritza, Ostalaritza, Osakidetzak e.a. Azken urteotan egin dira kanpainak sektoreka eta sortu izan dira taldeak.

Ikasle batzuen eta besteen beharrak desberdinak direla kontuan hartuta, hauen beharretara egokitutako eskaintza egitea litzateke, etorkizuneko euskaltegion beste eginkizunetako bat.

Baliabide eta azpiegiturak

hobetu

Teknologia berrien bidez: autoikas-kuntza (BOGA), on-line...

Agurtzane Epelde

Udal Euskaltegiko zuzendaria



Amaia Larrañaga AEK-ko zuzendaria



Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ. ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!** IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Batoz informazio eske!

[AKORDATZEN NAIZ]



MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

«Bonbardaketa Lekeitixon»

Abiaziuak jotzen zabanian bildur haundixa pasatzen gendun. Lekeitixon gaudela, Kalbarixo mendixan jolasian ibiltzen giñan umiok. 30 edo 40 gaztek, errefugiatuak danak, ezpataka jolasten gendun: Pasaikuak, Zarauzkuak, Donostiakuak...

Etorri zan abioi zahar hori, "abuelo" hori, eta hasi zan mendixan bonbak botatzen. Danok korrika, lurrian zihar bueltaka. Gure lehengusu bati, Iriondori, partietan jo zion, eta bidian hil zan. Haren familixia gurekin zagan etxian, Lekeitixon errefugiata. 11 urte zittuan.

Han mendi puntan umiak giñan bakarrikan. Nik ez dakitt zer pentsau zaben, soldauak giñala edo. Bost hildako egon ziran. Enterraixuan ere da-

nok goixan, kanpantorrian egon giñan, bildurrez. Uste zan haura segurua zala, baiña kanpantoria joko balen bonbiak, kanpantoria behera.



[GURE BERBAK]

Esaldi osagarri batzuk (eta 5)

Gaurkuan, subjuntiboko aditza daukenak eta *-zerik(an)*. Lehenenguan, aditz nagusixa *-komeni izan, opa izan, desiatu, nahi izan ...* - askotan ixilduta egoten da, haren biharrik ez eta. Gelditzen dan bakarra, askotan, mendeko esaldixa da, bere subjuntiboko aditzarekin.

- 1) - *Umiak? Ondo. - Hori dok, osasuna behintzat euki deixela!*
- 2) *Bueno, ez deixogun amenazu gehixegi eman koittauri, ehun urte jaukaz ixa ta.*
- 3) - *Imajinarxia? Ba guardixia moduan. Ba ez da(d)illa inor sartu koartelera.*

Bigarrenian, berriz, ezezko foman bihar dau aditz nagusixak, eta askotan *-AN* atzixkia gehitzen jako atzetik:

- 4) *Orduan aittak esandakua, ez zagan beste ezer egitterik, eh?*
- 5) *Ez zaban amak nahi bera bakarrik geratzerikan, eta etxera ezkondu giñan.*
- 6) *Eta gaiñera, ez dago bizi izeterikan basarixakin berakin bakarrik.*
- 7) *Ta nik ez naban pentsatzen ezkontzerikan, eh?*

Jesus Mari Makazaga



Jaika
jatetxea

Menu bereziak 17 €-tik • Karta

Pedro Muguruza, 27 behea - Tel.: 943 74 10 29

615793406



MENDARO

Eraikitzailearen prezio zuzena, bitartekorik gabe.

3 logela, saloi-jangela, 2 komun, sukaldea eta balkoia. 90m²-ko azalera erabilgarria. Material bikainez eraikia. Azkeneko etxebizitzak.

41.615.000 pta



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

AZALEA
edergintza

Orain mikropigmentazioa eta laser depilazioa ere egiten dugu

Trenbide kalea, 3 - Tel. 943 74 03 10

PEDRO ZUBIZARRETA TXOFERRA

«Bitorixa zapaldu naban estraineko egunian 8 egun egin nittuan kalabozuan»

Zenbat kilometro egin ote ditu Pedro Zubizarretak? Zenbat merkantzia eta zenbat pertsona batetik bestera garraiatu? Bizitza osoan txofer lanetan aritu den 84 urteko gizon honek, duela urtebete eskas laga zion bere autoa gidatzeari. Elgoibar eta Eibar artean kabotaje lanak egiten hasi zenean dozena bat kamioi baino gutxiago izango ziren herrian eta automobilak ere hatzekin kontatzeko adina. Bixikeriak, berriz, mila.



► **Noiz hasi zinen kamioiarekin lanean?**
Soldadutzatik etorri eta belaxe, bixamonian. Soldadutzara juan nitzanian 21 urte eukiko nittuan, eta sei hillabete barrirakan egin nittuan. Soldadutzara juan aurretik, 14 bat urtekin, Arriola y Co. tallarran, garaje modura lagatzen zaben almazen batian biharrian hasia tokau jatan. Zeozer zaganian, hara etortzen ziran konponketak

egittera. Zapatuero kamioi danak garbitzen nittuan, eta hola, txofer ikasiaz juan nitzan. Garajetik Maalara kamioiak etaratzen eta hola ikasi naban txofertzan. Gaur modura ez zagan ikasterik, ez zagan auto-eskola eta holakorik, norberak ahal zaban modura ikasi bihar zaban. Gero, propiña ematen zien.

► **Gida baimenik ez al zen behar?**

Akordatzen naiz neu txofer eta Bixente Sol, pelotarixa, futbolistian aitta, jun giñan autuan esamiña egittera. Esan zigun, "botai-zue aurreraka eta kotxia atzeraka, botai-zue atzeraka eta aurreraka kotxia. Bueno, bueno... multak pagaeuz ikasiko dozue txofer!".

► **Gasolinarekin beharrean ikatzarekin mugitzen zen kamioia gidatzen ei zenuen...**

Halaxe da. Lehenengo gasojenua neuk ibilli najuan Elgoibarren. Ikatza kamioian atzeko aldian, potuan sartu eta harek sortzen zaban gasakin, ikatz indarrakin, ibilli egitten giñuazen. Oin gasoliniakin ibiltzen dan moduan, lehen ikatzakin eta egurrakin. Gerra ostian restriktziuak zauden (errazionamendu kartillak 1952. urtera arte iraun zeuben) eta kupuak edo baliak ematen ziguen. Ostantzian, egunero ikatza kargau bihar zan. Ikatza pisura saltzen zan eta basarritarrak pisu gehixago irabaztiarren egurrari ura botatzen ziuen, eta gero han ezagun izaten zaban. Kalte egitten zion motorrari. Motor de arrankiakin (abiatze-motorra) normal pizten zan, baiña emendau ezkeron problemia betiere. Deposituan gordeta gasolina apur bat genduan, iñoiz motorra pizterakuan arazorik izan ezkeron, badaezpada.



«Oin dala urtebete edo kendu eragin die autoa, urte asko daukadazela eta, 85 egin behar ditzutela eta»

► **Nolako kamioia gidatzen zenuen?**

Ford 4 3HC txiki bat. 2,5 edo 3 bat tonako pisua izango zaban, baiña 5 edo 5,5 tonelada kargatzen jakon. Gero kamioi berrixa eman ziguen, kamioi inglesa zan; Sedon, 6 tonakua zan haura, eta 8 edo 9 kargatzen giñon. Ardotara-eta 9 barrikakin jutun giñan; bestiak 8 bezela, gu bederatzikin, prezixo igualian.

► **Nolakoa zen zure lan egun bat?**

Errekadista ibiltzen giñan Eibarrera hirulau kamioilari, goizian biaje bat eta atsaldian beste bat. Edozer eruatzen genduan, zaguana; kanterako hondarra, Sigmarako fundidua, Alkorianera piezak, e.a. Egunerokua horixe zan. Inoiz egitten genduan kanpora ere, baiña gitxi. Orduan kamioi danak dedikatzen ziran kabotajian, hurreko lan txikixak egitten.

► **Asteburuan ere lan egiten zenuten, ezta?**

Astian zihar biharrerako (kabotaje lanetan) eta gero, garbi-garbi laga, ipiñi bankuak, eta asteburuetan jendia hara eta hona eruateko. Orduan ez zagan ba autobusikan eta kamioiak ere gitxi zauden. Bateko Debara, edo besteko Arantzazura: prozesioren bat zaganian jua bihar izaten genduan. Danerako balio zaben kamioi harek. Zapatu goizetan Madarixara biajia egitten genduan egun pasa zijuan jendia eruateko. Futbolistekin ere

jaiero, atsaldian hara eta hona; Bergarara, Mondragora, Bitorixara...Danak atzian jartzen genduazen bankuetan. Batere bentanarik be. Biaje gogorak ziran, baiña sasoiu orduan ona, eta kantsau ez.

► **Gasteizera joan zinen estraineko aldia betirako gogoratuko duzula esan didate...**

Txofer ikasi nahixan nagan eta kamioiak inbiltzarren, Pedro (Barrutia) difuntuakin jua nitzan estraiñekoz Bitorixara. Hari pagau egitten ziu, eta neri ez. Lehenengo eguna zapaldu nabana Bitorixa, kartzelara lotara 8 egunetan! Gerraostia zan orduan eta Bitorixatik estraperluan patatia ekartzia zan gure asmua. Banator handik (kargiak, patatiakin gatozela) eta ene bada! han kruzian harutz eta honutz zabizela ikusi naban. Ointxe galdu gara pentsau naban, motoristak dira: miñoiak, lehen-lehenengo txapelgorriak. Hemen mikelietik bezela han miñoiak zian. Eta, ba, harrapau giñuzen eta barrura, kartzelara lotara. 8 egun egin nitzuan kalabozuan. Orduan danetik ibiltzen zan estraperluan: olixua, jaboia, kafia... dana zagan interbeniuta. Eta ni lehenengan harrapau!

► **Kamioilari izatea oso ondo ikusita zegoen lehen, ezta?**

Orduan txoferra izatia zan gaur jaungoikua baino gehixago, diferentia. Or-

duan ez zagan nola mobittu batetik bestera eta, txofer ikasteko modurik ere ez zaguanez, askotan "nora zuaz? Eruego nozu?", taxista lanak egitten genduzen. Neuk ezagupen haundixa euki dot Eibarren, Ermuan... txoferra badakizu...

► **Noiz arte eduki duzu autoa?**

Ointxe arte. Euki dittut: Once ligero bat, Quince ligerua, (Citroenak ziran, baiña oin ikusi ere ez dira egitten) Peugeotak beste 3 edo euki dittudaz. Azkena Fiat Uno bat euki dot, ointxe arte. Oin dala urtebete edo kendu eragin die, urte asko daukadazela-eta, 85 egin bihar ditzutela-eta..Alabana zan izatez, baiña neuk ibiltzen naban. Biharra izan arren, beti gustau izan jata konduzitzia. Oin zeozer falta dotela somatzen dot. Hara jua biot, bestera jua biot..., txikito batzuk jo Eibarren, Ermuan...

► **Bitxikeria asko izango dituzu?**

Txofer ikastiarren kadrila haundi bat Ondarrura jua giñan. Taberna ipiñi berri bat zagan han. Pelotarixak bialdutako diruakin egindako tabernia zan. Neskak zauden inponentiak eta neska harekin juatiarren, zinia ikusi bihar genduala ba. Kamiñua ebagitta zagan, ordia, eta zanjara jausi nitzan, lehenago juatiarren. Musua apurtu naban. Hala ere, zinera jua giñan gabian, sudurra apurtuta.

[PROTAGONISTA]



Mikel **Olaizola**

15 urte egin zituen Mikel Olaizolak joan zen ekainaren 2an, eta egun berean Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako txapela jantzi zuen. Bigarren urtez segidan, Mikel Olaizola elgoibartarra bere mailako txapelduna izan da. Elgoibar Ikastolako Errazu bertso eskolako partaidea da, eta bertso paperetan maisu izateaz aparte, bat-bateko lehiaketan ere hartu zuen parte. LH2. mailan Ikastolako Ibon Goikoetxeak ere aipamen berezia jaso zuen. Txikien mailan Nora Hadi, Olatz Astigarraga eta Josu Atxak osatutako taldeak ere hartu zuen parte.

[NOTIZIA]

Udalak aurikusitako zenbait proiektuk diru gehiago jasoko dute

Hainbat gastu burutzeko premia larria ikusi du Udalak, eta azken Oso-ko Bilkuran 1.151.723,78 euroko kreditu gehigarrien bidez, 2006ko aurrekontua aldatzea erabaki zuten. Honela, Udalak aurikusitako zenbait proiektuk diru gehiago jasoko dute. Beraz, hasieran 833.571,72 euroko kostua zeukaten obrak, aldaketa honekin 1.985.295,50 euroko kostua izango dute.

Aldaketa aipagarrienak

Zenbait kontzeptu ez zeuden aurtengo udal aurrekontuan sartuta: Arau Subsidiarioak aztertzeak aholku teknikoak (120.000 euro), Olosoko hilerriko ataria konpontzea (120.000 euro), haurtzaindegiko altzariak (30.000 euro), frontoiko atzekoaldearen



konponketa (30.000 euro), San Pedroko bolatokia konpontzea (60.000 euro), eta gaztelekua eta ludotekaren lokalak erostea (65.223,78 euro). Hauekin batera, beste proiektu batzuetako diru kantiitatea gehitu egin da. Bestek beste, kaleen konponketa, Sigmako aparkalekua, belarra eta zuhaitzak moztea eta haurtzaindegiko obrak...

[ZENBAKIA]

85

Errotatxo Elkartetik esan digutenez, 85 lagun inguru hil dira Elgoibarren HIESak jota. Aste honetan 25 urte bete dira HIESaren berri izan genuenetik, eta esan daiteke egoerak hobera egin duela. Bihar, eguerdiko 12:00etan HIESaz hildakoei omenaldia egingo zaie Donostian.

[ARGAZKIA]



Jantoki modura estreinatu zuten joan zen zapatuan Sigmako aparkalekua. Club Deportibo Elgoibarko 200 lagun inguru bildu ziren bertan denboraldi amaierako afaria egiteko, eta argazkian ikusten den bezala, leku faltarik ez zuten eduki. Maila guztietako jokalariek eta zuzendaritzako kideak elkartu ziren. Jose Luis Insaustiren azken afaria izan zen presidente karguan. Primerako gau giroa egiten zuten eta ez zen umorerik falta. Bihar, berriro beteko da aparkalekua. Autoak kendu eta Trinitateetako tanborradako partaideek afalduko dute bertan.

Elgoibarko Topagunea aurkeztu zuten ekainaren 3an



Herriko eragile sozial, kirolari, kultura zein antzerki taldeen babesarekin Elgoibarko Topagunea aurkeztu zuten joan zen zapatuan, ekainaren 3an. Euskal preso politikoen herriratzean, eta orohar, beraien eskubideak betetzearen aldeko lanean, herritar gehienek sostengua jasotzea nahi dute. Bestalde, iazko azaroan Ibaetako Manifestua bezala aurkeztu zen dokumentua gizarteratzea da Topagune honen helburua. Momentuz, herriko 20 talde desberdinek erakutsi die babesa. Topagunean parte hartzeko deia herritar guztiei luzatu nahi diete.

Madalako ekitaldia

Ekainaren 2an, bestalde, talde sinatzaileen kolaborazioarekin ekitaldi berezia antolatu zuten Topaguneko kideek Madalako parkean. Bertsoak, musika eta antzerkia egin zuten partehartzaileek. Bestalde, losu Lariz euskal errefuxiatuarekin izandako elkarrizketa bat jarri zuten entzungai eta Fernando Bert euskal presoaren anaiak, espexetik jasotako anaiaren gutuna irakurri zuen. "Euskal presoak Euskal Herrira" lemapean, jende dezente bildu zen Madalan, euskarri preso politikoen eskubideak aldarrikatzeko.

[MOTZ-MOTZIAN]

Arantzazura erromesaldia

Datorren ekainaren 18an Elgoibartik Arantzazura joateko erromesaldia antolatu dute. Goizeko 9:30ean izango da irteera Txankakuako autobus geltokian. Interesatuak Murumendiarrak gozotegian eros ditzakete txartelak 30 eurotan. Bidaia eta bazkaria sartzen dira prezio honetan.

Iruñara txangoa

Haizea Emakumea Taldeak antolatuta, Iruñara irteera izango da ekainaren 18an. Goizeko 9:00etan izango da irteera eta Nafarroako hiriburua bisitatu ostean, bazkaria egingo dute. Interesatuak Pitxintxun eman dezakete izena. Bazkideak 30 euro eta gaitzetzekoak 35 euro.

San Pedroko zelaia erabiltzeko arauak

Ekainaren 1etik irailaren 30era arte San Pedroko zelaia garbitzeko arduraduna jarri du Debemenek Ostegunetik astelehenera bitartean egingo du lan pertsona honek. Zakarrontziak hustu, komunak garbitu eta aparkalekuak txukun mantentzea izango da bere lana. Erabiltzaile guztien hoberrako, San Pedroko zelaia erabiltzeko arau batzuk luzatu nahi dituzte:

- Autoa aparkalekuan laga.
- Sua parriletan bakarrik egin.
- Ezin dira zuhaitzetako adarrak moztu sua egiteko.
- Zaborra edukiontzi edo zakarrontzietara bota.
- Txakurrak lotuta eraman.
- Natura eta ingurunea errespetatu.

Milagrorra irteera

Jubilatuaren Egoitzak Milagrorra irteera antolatu du datorren ekainaren 14rako. Goizeko 8:15ean aterako da autobusa Plaza Handitik. Interesatuak 29 euro ordaindu beharko dituzte (bidaia + bazkaria). Milagroko herria bisitatzeaz gain, bertako jaki tipikoak dastatzeko aukera izango dute.

Lapurreta dezente izan dira azkenaldian Elgoibarren



Bire dendako eskaparatea.

Uda partea gerturazten denean ohikoak izaten dira lapurretak. Gure herrian ere, azkenaldian gora egin du lapurreta kopuruak. Joan zen barixakutik zaturako gauean Bire elektrogailuen dendan sartu ziren lapurrak. Dendako kristal bat puskatuta barnerratu ziren dendan.

Bestalde, aurreko asteetan Kondia enpresan eta zenbait etxe partikularretan lapurtu dutela kontatu digute.

Etxetik ateratzerakoan ateari giltza ematea komeni da.

25 urte pasatu dira HIESaren berri izan genuenetik.

Nola gogoratzen duzu HIESak Elgoibarren izan zuen eragina?

LUIS BERDONCES

Jubilatua
69 urte



“Gogorra izan zen. Inork ez zekien zer gertatzen ari zen, gazte mordoa hiltzen zen eta ez genekien zergatik. Modan jarri zen heroinaren kontua. Egun kontrolatuago dago.”

M^o ISABEL GARITAONANDIA

Etxekoandrea 68 urte



“Sorpresaz hartu gintuen eta oso traumatikoa izan zen. Tamalez lehenengoak izan ginen HIESa ezagutzen. 25 urte beranduago gauzak asko hobetu dira.”

ISABEL MARIN

Etxekoandrea
55 urte



“Tristeza izan zen. Gazte asko hil ziren, eta gertukoak gainerra. Familiakoentzat garai gogorra izan zen. Egun infomatuago gaude eta zorionez ez dira hainbeste hiltzen.”

FILO CASTRO

Etxekoandrea
47 urte



“Garai hartan gaixotasun oso latza zen HIESa. Gaizki sartu zen gure herrian eta jende asko eraman zuen berarekin. Zorionez, medikuntzak asko egin du aurrera.”

[BAI ala EZ?]

Dopina kirol guztietara zabaldua dagoela uste duzu?

BAI %86

“Bai, eliteko kirol gehienetan sartuta dago eta kirol batzutan amateur mailan ere sartzen ari da: gaur egun zikloturistak ere dopatzen dira. Oso gizarte konpetitiboan bizi gara.”

EZ %14

“Ez. Zeozertxo igual hartuko dabe batzuk baina ez denek, eta ez dut uste kirol askotan ematen denik dopinaren asuntua. Txirindularitzan gertatzen dena harrigarria da.”

Datorren asterako... **Ekainaren 7an Organu Emailen Nazioarteko Eguna izan zen. Organu emaila al zara?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu

Gabi jatetxean.

Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

JAIOTAKOAK



Jon Sota
[Apirilak 28]
Iñigo eta Ana
Mari



Manex Arrieta
Arizabalaga
[Maiatzak 11]
Tomas eta Maite



Naroa Ramirez
Avila
[Maiatzak 13]
Javi eta Yoli



Ibai Aranzabal
Fernandez
[Maiatzak 16]
Ricardo eta Isabel



Jon Rubio
Vergara
[Maiatzak 17]
Oscar eta Juana



Alain Roman
Trinidad
[Maiatzak 17]
Manuel eta Iratxe



Elsa Zubiaurre
Urizar
[Maiatzak 17]
Paul eta Maria



Sare Sainz
Ibarluzea
[Maiatzak 23]
Edu eta Leire

Gorka Vila
Santos
[Maiatzak 3]
Gorka eta Maider

Lorea Urain
Muguerza
[Maiatzak 11]
Jose Luis eta
Aranzazu

Ainhoa
Bustamante
Acevedo
[Maiatzak 15]
Alejandro/Maria

Beñat Iturriaga
Arriola
[Maiatzak 23]
Jon eta
Agurtzane



Nahia Urbiola
Pinilla
[Maiatzak 25]
Javi eta Neli



Irune Carcedo
Boyer
[Maiatzak 29]
Imanol eta
Carolina

HILDAKOAK

Jose Etxaniz • [76 urte] • Maiatzak 3
Abdon Baskaran • [78 urte] • Maiatzak 4
Eusebia Iriondo • [88 urte] • Maiatzak 13
Nicolasa Iriondo • [85 urte] • Maiatzak 13
Pilar Etxabe • [78 urte] • Maiatzak 14
Bernabe L. de Larrainzar • [70 urte] • Maiatzak 17
Carlos Panizo • [81 urte] • Maiatzak 25
Mari Carmen Azpiazu • [63 urte] • Maiatzak 26
Pedro Balzola • [56 urte] • Maiatzak 30
Amadeo Garate • [85 urte] • Maiatzak 30
Jose Lizarralde • [89 urte] • Maiatzak 30

EZKONTZAK

Eduardo Uribe eta Miren Gallastegi [Maiatzak 13]
Iker Rodriguez eta Oihana Eugi [Maiatzak 20]
Javier Barrenetxea eta Carmen Duque [Maiatzak 27]

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

[IKAS KONTUAK]

Ikasteko lokala

Azterketa garaia dela-eta, Elgoibarko Udalak ikasteko lokal bat irekiko du, larunbatetan eta igandetan ikasle guztientzat. Lokal hau erabiltzeko interesa duten guztiek Udaletxeko Kultura Sailean eman beharko dute izena aldeaz aurretik. Halaber, bilera bat antolatuko da aipaturiko lokalaren funtzionamendua eta ordutegia ezartzeko. Datorren ekainaren 11n jarriko da ekimen hau abian, herriko ikasle guztiei azterketarako dituzten ikasgaiak prestatzeko gune egoki bat eskaintzeko helburuarekin.

78 umek jaso zuten domina Finalista Egunean



Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, Finalista Eguna izan den domekan. Goizeko 10:30ean elkartu ziren ume guztiak Plaza Handian eta oinez ekin zioten San Pedrorako bideari. Eguerdiko 12:30ean hasi zen domina banaketa, eta 78 neska-mutilek jaso zuten domina. 10 mendi egin dutenetatik hasi, eta mendian gora 40.000 metro egin dituztenekin amaitu zen domina banaketa. Bazkaria eta Atxutxiamaika Aisialdi Taldearen eskutik haurrentzako jolasak egon ziren ondoren.

Herri Eskola eta Ikastolaren Eguna ospatu ziren zapatuan, ekainaren 3an



Herri Eskolakoen Plazaratze Eguna eta Ikastolaren Eguna ospatu ziren zapatuan. Herri Eskolako ikasle eta gurasoak Plaza Handian bildu ziren. Trikiti doinuak, jolasak eta umeentzako tailerrak ez ziren falta izan. Ikastolan, bestalde, kirola, eta haurrentzako jolasak antolatu zituzten. Erifako zenbaki irabazleak: 1. saria 39 (erreserba 1303), 2. saria 1020 (erreserba 1425), 3. saria 868 (erreserba 503). Sarituek 943742731ra deitu.

Musika Eskolako kurtso bukarerako jaialdia

Joan zen ostiraleran, ekainaren 2an, izan zen Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako azken kontzertua. Talde handien txan da izan zen oraingoan. Herriko Antzokia jendez gainezka zegoen. Ikasleek denetariko ikuskizunak prestatu zituzten: koroa, dantza, instrumentu saioak... musika doinu moderno eta klasikoak nahasturik, ikuskizun polita eskaini zuten.



[IRTEERAK]



Herri Eskolakoak Gazumen izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Gazumera egin zuten irteera. Erreziletik abiatuta, Zelatuneko lepora iritsi ziren eta hemendik gailurrera. Ikasturteko azken mendi irteera izan zen.

AGURTZANE GARZIA GILTZURRUN TRANSPLANTATUA

«Transplantearen deiak gutxien espero nuenean harrapatu ninduen»

Ekainaren 7an Organu Emaleen Nazioarteko Eguna izan zela-eta, asteburu honetan mahai informatiboak jarriko dira kalean, eta nahi duenak emaile egiteko aukera izango du. Gaurkoan gai hau oso gertutik ezagutzen duen emakume batekin berba egin dugu. Agurtzane Garziari giltzurruna transplantatu diote duela lau hilabete eta bere esperientzia kontatu digu.

► Giltzurruna transplantatu dizute. Zer moduz zaude?

Oraindik lau hilabete bakarrik pasatu dira eta gutxi dela esaten didate baina hala ere, oso ondo nagoela esan daiteke. Giltzurrunak bere funtzionamendua ia osotasunean berreskuratu du eta hori da inportanteena.

► Noiz eta nola jakin zenuen giltzurruneko arazoa zenuela?

Duela zazpi urte. Urdaila begiratzera joan nintzen eta ezustean, herentzia jasotako gaixotasun bat neukala esan zidaten. Medikuek nahiko transmisio eskasa egin zidan, alarmatu egin zen eta ni alarmatu ninduen. Gauzak modu batera edo bestera esateak garrantzi handia dauka.

► Hasieratik esan al zizuten transplantatea behar zenuela?

Bai, argi eta garbi esan zigun zein izango zen prozesua, nahiz eta ezin jakin zenbat denboratan burutuko zen. Ustez baino askoz azkarrago joan zen dena eta lau urtetan giltzurrunek lan egiteari erabat utzi zioten.

► Zenbat denbora itxaron zenuen transplantatea egin arte?

Hasieratik kontrolekin hasi ziren eta beharren arabera tratamenduak ipintzen zizkidaten. Dialisiarekin giltzurrunak %10a baino gutxiago lan egiten zutenean hasi

nintzen; duela bi urte. 19 hilabetez egon nintzen dialisia egiten. Hasieratik ez ninduten jarri itxaron zerrendan ezin zidatelako trasplanterik egin, ez neukan giltzurrun berri bat ipintzeko tokirik. Horregatik lehenengo nire giltzurrun bat kendu behar izan zidaten eta hilabete batzuk pasatu ondoren, behin ondo errekueratuta nintzenean sartu ninduten zerrendan. Berez, 9 hilabetez egon naiz zain.

«Organo ematearen kontua beti izan dut argi, orain argiago»

► Gogorra izan al da zain egotea?

Prozesu guztia da gogorra. Egun batek bestera egoera berri asko asimilatu behar dira. Norberak ahal duen bezala aurreratu egin behar dio horri. Egoera fisiko onean eta ondo mentalizatuta egoteak lagundu zidan niri. Transplantearen deiak gutxien espero nuenean harrapatu ninduen.

► Transplantearen ostean ez al duzu arazorik izan?

Giltzurrun berria jarri eta segiduan hasi zen lanean. Egun gutxitan erretxazo intento bat eduki zuen baina konpondu zen. Geroa eduki dudak guztia badiardi normaldade baten barruan sartzen dela: ebakuntza ondorena, medikazioaren ondorioak...

► Organo-emaile al zara?

Etxean beti izan dugu oso garbi organuak emate horren kontua. Lehen argi bageneukan, orain dudarik gabe, argiago.

► Zer esango zenioke emaile ez den bati?

Beti esaten dena: Egun batetik bestera bizitza erabat aldatu daiteke, inork ez daki bihar edo etzi zeren edo noren beharra izango duen. Hori horrela izanda, laguntza jasotzeko beti prest gauden bezala, emateko ere, eta are gehiago bizitza emateaz ari garenean, hainbeste pentasatu gabe prest egon beharko ginatke.

► Eskerrak eman nahi al dituzu?

Egunero ematen ditut, bizitzagatik eta daukadan guztiagatik. Pertsonalki ematen hasi ezker, ez nuke tokirik izango. Aldamenen denbora guztian eduki dudak jendeak bidea erraztu dit. Etxekoetatik hasi, inguruok, ospitaleko pertsonala... Ez da erraz ulertuko, baina gauza positibo asko jaso dut esperientzia honekin.

MIREN MUJIKA TANBORRADA KO ZUZENDARIA

«Emozionatzeko modukoa izango da aurtengo tanborrada»



Iritsi dira aurtengo Trinitate Jaiak eta badirudi ez direla edonolako jaiak izango. Egitarau zabala antolatu dute, eta ekitaldi aipagarriena nagusien tanborrada izango da. Tanborradako Batzordea sortu dute aurten eta lan handia egin du. Miren Mujika izango da zuzendarietako bat eta Andoitz Agirregomezkorta bestea.

► **Iritsi da egun handia. Urduri?**

Ez gehiegi. Hirugarren aldiz zuzenduko dut aurten tanborrada eta nahiko lasai nago, momentuz behintzat. Tanborrada hasten denean, egunean bertan jarriko naiz urduri, baina hori normala da.

► **Aurten inoiz baino gehiago entsaiatu omen duzue...**

Bai, eta igartzen da. Abestiaren izena entzutearekin bakarrik, denek dakite zer jo behar duten. Jendeak oso serio hartu du aurten tanborrada eta entseguetara ere, inoiz baino jende gehiago etorri da. Lista moduko bat pasatzen da eta hiru aldiz kale egiten duenari atentzia ematen zaio eta ez bada gehiago etorri behar, itxaron zerrendako hurrengoa sartzen da. Jende asko geratu da lekurik gabe. Oso inportantea da entseguetara etortzea. Askok us-te dute tanborra jotzea erraza dela, baina gauza asko ikasi behar dira. Aurten gainera, sekula parte hartu ez duen jendea dago tanborradan, edo aspalditik jo gabe egon dena... 6 aste inguru daramatzagu entseguekin eta azkenaldi honetan astean bi aldiz elkartu gara. Bihar arratsaldean egingo dugu azkena.

► **Zenbat jendek hartuko du parte?**

200 lagun inguru izango gara guztira. Dena ondo ateratzen bada, kriston tanborrada izango da, emozionatzeko modukoa. Kale guztiak beteko ditugu, eta akaso, Plaza Handia ere, txiki geratuko zaigu.

«Datozen urteetan herriko elkarteak gehiago inplikatzeari nahi da»

► **Nondik etorri da tanborrada indartzeko ekimena?**

lazko tanborradaren ostean zerbaitegin behar zela argi zegoen. Batzorde bat osatu da eta ahoz-ahoz jende dezente bildu da tanborradaren inguruan. Talde ho-

nek sekulako lana egin du. Dena antolatu dute, jantziak probatzen aritu gara, afarira zenbat jende goazen ere apuntatu dute. Sekula egin ez den lana egin da aurten. Datozen urteetan herriko elkarteak gehiago inplikatzeari nahi da, bakoitzak bere tanborrada egitea. Azpeiti edo Donostian egiten den moduko zerbaitegitea da ideia.

► **Elgoibarrek ba al dauka tradiziozko tanborrada asuntuan?**

Bai, ni umea nintzela gogoratzen naiz nire aita-eta, ateratzen zirela elkarte desberdinetan banatuta. Aspaldiko kontua da, baina badago tradizioa.

► **Zein berrikuntza izango dira?**

Sorpresa da, baina denetarik izango da. Karroza, kanoia, eskopeteroak, generala eta bere emaztea, kantinerak... Denda eta tabernetan tanborradako txapelak banatu dira eta tabernetan CDak banatu ditugu tanborradako abestiak jartzeko. Abestiak iazko berdinak izango dira. Egon dira abesti berriak sartzeko proposamenak, baina nahiago izan dugu betikoak ondo jotzea berriak ikasten hastea baino. Datorren urterako, beharbada!

TRIKITIXA JAIALDIA

"Manuel Sodupe Gelatxo" partitura liburuaren aurkezpena


Manuel Sodupe "Gelatxo" (1888-1953) izan zen gerra bitartean Gipuzkoa aldeko soinu-jotzaile-rik sonatuena. Errepertorio zabalaren jabe zen eta dohain aparta ei zuen piezak moldatzen ez ezik, inprobisatzen ere, sortzaile handia zenaren seinale. Trikitixa grabazio zaharretan ageri da Gelatxo: 1920ko hamarkadan badiu bost disko, bakoitza bina kantakoa. Pandero lagun emakume bat nabarmentzen da, gainera, eta garai hartan mota honetako bikoite bakarra omen zegoen. Bere emaztea, Juliana Esnaola (1892-1974), dela uste da. Disko hauetako errepertorioa solfeo

bidezko partituretan argitaratuko da orain, "Manuel Sodupe GELATXO. Soinua paperean 1" liburuxkan. Partitura-bilduma honi erantsita, Gelatxoren disko zaharrak CD batean argitaratuko dira berri.

Bihar, ekainak 10, aurkeztuko da liburua udaletxeko Pleno Aretoan (13:00etan). Gelatxoren semea, Pedro, bertan izango da. Girotzeko, Elgoibar, Azpeitia eta Eibarko Musika Eskoletako trikitilariak aterako dira kalejiran (11:00). Trikitixa Elkarteak kideen kalejiran (12:00) Tapia eta Leturia, Zendoia eta Lzer, Epelde eta Lutxurdio, Laja, Epelarre, Baltzola anaiak, e.a. aterako dira.



Eduardo Arrillagaren argazkiak Intermon Oxfamek 50. urteurrenean kaleratu duen argazki-liburuan



"La Mirada Comprometida. Fotoperiodismo para 50 años de solidaridad" Intermon Oxfam Gobernu Kanpoko Erakundeak sortu zeneko 50. urteurrena ospatzeko atera duen liburua etxean jasozuenen, demaseko ezustekoa, eta poza, hartu zuen Eduardo Arrillaga argazkilariak: liburuaren azalerako duela lau urte Nikaraguan atera zuen argazki bat aukeratu zuten berak ezer jakin gabe. Erakundearentzat lanean aritutako sei argazkilariak; Nicaragua, Bolivia, Etiopia, India, Sri Lanka, Chad eta Mexikon ateratako argazkiekin osatutako argaz-

ki-erreportajeek osatzen dute liburua. "Argazkilari oso onak dira, zaila da horrelako liburu batean egotea, eta are zailagoa portadarako aukeratu izatea. Ezusteko polita izan da". Mitch hurakaren ostean "La Nikaragua posible" Intermonen kooperazio proiektuari esker Nikaraguako emakumeek nola aurrera egin duten erakusteko asmoz joan zen elgoibartarra Matagalpa eskualdera. Liburua ezin da oraingoz liburudendetan eskuratu, baina honakoa da Intermon Oxfanen inormaziorako telefonoa: 902 330 331 edo www.IntermonOxfam.org.

Trinitateetako V. Azoka Berezia zapatu honetan

Herriko baserrietan hazten diren animaliak eta ekoizten diren produktuk erakutsi eta salduko dira Trinitateetako V. Azoka Berezian. Animaliekin 30 bat baserrik hartuko dute parte: behiak, pottokak, Karrantzako astoak, ardiak, txakurrak, ahuntzak eta txerriak egongo dira ikusgai. Produktuekin, berri, 10 baserri egongo dira. Goizeko 10:00etan hasiko da azoka Leku Eder parkean. Baserrietan ekoiztutako kalitatezko produktuen dastaketa 11:00etan hasiko da: lumagorriko oilaskoa eta Basatxerri ezaugarria duten txerriak eta Lizundia Txabola baserriko sagardoa. Aurten ere egingo da idi-dema erakustaldia, 13:00ean Nafarroa Enparantzan.



berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, opariak eta deskontuak.
4. Promozioetan abantailak



Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetuz* gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

JOSUNE BEREZIARTU ESKALATZAILEA

«Eskalatzeak eta naturan murgiltzeak izugarrizko lasaitasuna ematen didate»



2002an Suitzako "Bain de sang" (9a) kateatzea lortu zuenetik munduko eskalatzaile handienen olinpoan lekua hartu du Josune Bereziartu ordiziarrek. Bere unerik onenak erakustera egin zuen bisita aprobetxatuz, eskalada izan genuen hizpide emakume harrigarri honekin.

► **Zuhaitz guztietara igotzen diren ume bihurri horietakoa al zinen?**

Zuhaitz guztietara igotzen nintzen, bai, baina bihurria baino abenturazalea nintzen. Umetan denok daukagu alturetara igo eta zer dagoen jakinmin hori.

► **Etxean nola hartu zuten zure afizioa?**

Oso ondo. Mendian ibili ostean, 17 urterekin eskalatzen pasio handiz hasi nintzela ikusirik, gurasoek errespetuz hartu zuten nire desioa. Arduratsua izaten hezi nau amak, halakoa naizela frogatu baitiot. Zentzu horretan pribilegiatua izan naiz eta sekula ez dut gezurrik esan behar izan. Izan ere, akaso, duela urte batzuk baino ulergarriagoa da kirol hau orain. Behin Oñatira eraman nituen eskalada zer zen ezagutu zezaten... eta kirol!

► **Parera batetik zintzilik pasa al ditu Josunek bere bizitzako unerik onenak?**

Ez dakit zintzilik izan diren, baina eskalada inguratzen duten gauza guztiek bizi arazi dizkidate unerik onenetarikoak eta baita txarrenak ere. Nire izakera mendiarren inguruan egin ditudan ekintzek zintzilikatu dutela aitortu beharra dut. Alabaina, ikastolako garaiak, familiarekin bizitakoak eta aitonaarekin mendira joaten nintzenekoak ere oso barruan sartuta ditut.

► **Denbora luzez ezin eskalatu baduzu?**

Energia xahutu ezean, jasanezina egoten naiz; urduri, atzazalak janez. Eskalatzeak eta naturan murgiltzeak izu-

garrizko lasaitasuna ematen didate, pentsatzeko astia, gure gizarte azeleratu honetan. Eta egia da eskalatzaileok oso fanatikoak garela gure afizioarekin.

► **Gizon eta emakumeak parekatu daitezke kirol honetan.**

Fisiologikoki desabantailak dauzkagun arren, emakume bat gizonen pare ibil daiteke. Fisikoa ez da dena kirol honetan; teknika landua, buru ona eta intuizioa ezinbestekoak dira. Batzuetan, neska berri bat mutilen parera iristeak mesfidantza sorrarazten du eta bere lorpenak aintzat hartuak izateko egiaztatu nahi izaten dituzte batzuek, baina nire kasuan oso errespetetua sentitzen naiz.

► **Zein dira eskaladarako zure doaiak?**

Hatzetan daukadan indarra da nire arma nagusia, eta genetikak ere lagundu dit, gutxi lesionatzen bainaiz. Ere kurtsu teknikoak ere ondo homituta nago eta sendo nagoenean badakit nire burua gobermatzen. Burua oso garrantzitsua da bi zentzutan: bideko ariskuei beldurra galtzeko, eta porrotaren beldurra gainditzeko. Asko saiatu naiz nire buruarengan konfidantza edukitzen. Lasaitasun puntu hori lortzeko yoga ere erabili dut.

► **"Baing de sang" (9a) modukoak igo ostean, zer erronka dituzu?**

Baztertuta eduki ostean, nire hastapenetara, alpinismora, itzultzen ari naiz. Uztailan Alpeetara goaz, bertan, Walker espologia eta Jorasse Handietan probatzera.

«Hatzetan daukadan indarra da eskaladarako nire arma nagusia»

PILOTA JAIALDIA

Mikel Goñik estreinatuko du Ikastolako frontoi margotu berria



Udal Kirol Patronatuak eta Lagunak Pilota Eskolak antolatutako pilota jaialdi apartak emango die hasiera aurtengo Trinitate jaiiei. Gaur iluntzean, 22:00etatik aurrera, jokatuko dira partidak Ikastolako frontoian. Giroa beretzeko Lagunak Pilota eskolako pilotariak kantxaratuko dira lehendabizi Arrasate eta Eibarko pilotariei aurre egiteko, eta hauen ostean, Ordago enpresako pilotari profesionalen arteko partida jokatuko da. Ber-

tan, Mikel Goñi (Goñi II) oraindik sa-soiko dagoen ala ez gertutik ikusteko aukera izango da. Duela gutxira arte goi mailan aritutako Oronozko pilotariak, doan lekura doala, ikusmina sortzen eta pilotalekuetara zaletuak erakartzen jarraitzen du oraindik ere. Olanan izango du lagun atzeko koa-droetan, eta Ubera eta Zezeaga aurkari. Jaialdira hurbiltzen direnek itxura aldatuta aurkituko dute frontoia, duela gutxi margotu baitute.

Tenis Jaialdia zapatu honetan Olaizaga Kiroldegian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Tennis Jaialdia antolatu du Olaizaga kiroldegian, zapatuan, 10:00etatik 15:00etara. Tenisaren inguruan hainbat jolas (diadak, puzgarriak, minitrapa, e.a.) izango dira Olaizaga kiroldegiko kantxan. Sei urtetik gorako edonork parte hartu dezake jaialdian. Antolatzaileek lagako dizkiete raketak eta beharrezko gainerako materialeak. Sarrera doan izango da. Tenisarekin jarraituz, Basarte elkarteak antolatutako II. Tennis Txapelketa jokatuko da, ekainaren 17an, IMHko eta Olaizaga Kiroldegiko tenis-pistetan.

Sanmigeldarren artean erabakiko da Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa

Floreagako (Azkoitia) bolatokian jokatuko da Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren azken jaurtialdia zapatu honetan.

San Migelgo hiru bolari: Xabier Loiola (41 txirlo), Angel Ibarluzea (34 txirlo) eta Jabier Osoro (31 txirlo) ailegatu dira sailkapen nagusiko aurreneko hiru postuetan, eta gauzak asko okertu ezean, badirudi, txapela Elgoibarren geratuko dela.

Hiruren arteko lehia izango da eta Xabier Loiolak 7 txirloko aldea izango du bere alde. Aurreko bederatziz jaurtialdian erakutsi duen erregulartasuna azaltzen badu kostako zaie gainerako bolari txapela bere burutik kentzen. Halere, ez dela fido azaldu digu zuhurtziaz, "Ezin da ezer aurreratu jokatuko aurretik, ikusi egin behar".



pela bere burutik kentzen. Halere, ez dela fido azaldu digu zuhurtziaz, "Ezin da ezer aurreratu jokatuko aurretik, ikusi egin behar".

Sigmako Eskuz Binakako Pilota Txapelketa abian da

Joan zen ekainaren 6an hasi zen XXVI. Sigmako Eskuz Binakako Pilota Txapelketa. Partidak martitzenetan eta eguenean jokatuko dira Sigmako frontoian, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Finalaurrekoak uztailearen 12an eta 14an jokatuko dituzte eta final handia, ohi dutenez, Santiago Egunean (uztailak 25) jokatuko da 11:00etatik aurrera. Lehen mailan sei bikote ari dira lehia eta bigarren mailan bost bikote. Iaz, Txapelketa sortu zeneko 25. urteurrena ospatu zuten Sigmakoek,

eta txapelketa nagusian, lehen mailan, Berazak eta Ansolak osatutako bikotea izan zen irabazlea. Aurten ere bikote hau izango da gainditu beharrekoa, bikotea osatzen jarraitzen baitute. Alebin eta benjamin mailako dozena bat pilotari gaztetxok ere jokatuko dituzte manimanoko partidak Sigmako frontoian.

Debarroko Txapelketak ere aurrera darrai eta elgoibartarrak sendo ageri dira. Nagusiek Arrasate hartu zuten mendean, jubenilek Olalde eta kadeteek Bergara



TRIATLOIA


Ibon Gabilondo 5. postuan sailkatu zen Arrasateko triatloian

Urgazi Triatloi Taldeko Ibon Gabilondo triatleta elgoibartarrak zapatu honetan, ekainak 10, 15:00etatik aurrera Zarautzen jokatu den triatloia du aurtengo helburu nagusitzat, eta prestaketak bide onetik doazela dirudi. Izan ere, meritu handiko 5. postuan sailkatu zen joan zen asteburuan Arrasateko triatloian, non 200 lagunetik gora aritu ziren lehian. Urkuluko urtegiaren jokatu zen igeri proban (1,5 km.) 10. postuan atera zen uretatik, 19:51 denborarekin. Bizikletan egin beharreko 44 kilometroak egin ostean, 6. postuan sartu zen Gabilondo Arrasateko kaleetan, eta antxintxikako 10 km.ak bukatzean, 5. postuan sartu zen helmugan (2:11:49). Zumarragako Aitor Alberdi izan zen irabazlea (2:08:49). Astebete lehenago 11. postuan sailkatu zen Gabilondo Ondarroako triatloian. Zarautzeko



triatloian distantzia luzeagoei egin beharko die aurre: 2,5 km. igerian (Getariatik Zarautzera), 84 km bizikletan eta 20 km antxintxika. Ez dauka lan makala aurretik!

Ate Irekien Eguna arrakastatsua eta dibertigarria suertatu zen



Ateak Ireki Kirolari egitasmoan parte hartu zuten gaztetxoek Kiroldegiko eta Mintxetako ateak parez-pare zabalduta aurkitu zituzten joan zen domekan. Esan beharrik ez dago ederki pasa zutela beraiantzako espreski prestatu zituzten jolasekin. Kiroldegiko kantxan, esaterako, eskalada, rapelak eta tirolinak; eta igerilekuan puzgarriak eta haur parkea izan zituzten. Honez gain, haur eta helduek Kiroldegiko zerbitzuak (sauna, squash, frontoi txikia, muskulazio gela...) eta Mintxetako futbol zelaiak eta atletismo pista dohainik erabiltzeko aukera izan zuten.

Ekainaren 15ean irekiko da bainu-denboraldia Mintxetan

Datorren eguenean, ekainaren 15ean, irekiko ditu ateak Mintxetako Udal Igerilekuak. Aurtengo berrikuntza nagusia, Mintxetako kanpoko igerilekuetako berdeguenean putzurik ez egiteko drainatze-sistema bat jarri izana da. Toailak jartzen diren tokietan putzurik eta lokatzik egin ez

dadin egin dira lanak. Zenbait hodi bereziren bitartez, gainazaleko ura igerilekuetako perimetroaren kanpoalderaino biderratu da. Udal arduradunek, "azken uda hauetan izandako eragozpen guztiak behin betiko desagertuko direla" uste osoa dute drainatze sistema honi esker.

[EMAITZAK]

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa

Arrasate **14** - Lagunak (Ula./Loio.) **22 (Nag.)**

Olalde **15** - Lagunak (Atxo./Arizb.) **22 (Jub.)**

Bergara **10** - Lagunak (Liz./Sal.) **22 (Kad.)**

Lagunak Txapelketa

Maiztegi **18** - Ruiz **8 (Benj.)**

Erasti **18** - Bollar **8 (Benj.)**

Idigoras **18** - Mendibil **5 (Benj.)**

Lizarralde **18** - Ibarluzea **16 (Inf.)**

BOLOAK

Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa

San Pedroko bolatokian

1- Anartz Esteban (Asola Berri) **7** txirlo

2- Arlindo Almeida (Elgeta) **6** txirlo

[AGENDA]

ESKU PILOTA Ikastolan

Debarroko Txapelketa

21:30 Lagunak - Arrasate (**Kad.**)

22:15 Lagunak - Eibar (**Jub.**)

Sigmako Txapelketa

Martitzena, 13

19:00 Portu/Gerrika - Ander/Xabier

19:45 Karral/Geman - Lizarralde/Kepa

20:15 Agirrebeña/Arillaga - Kamel/Txurruka

Eguena, 15

19:00 Ander/Xabier - Conde/Agirresarobe

19:45 Ansola/Beraza - Alzibar/Basueta

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaria erregularrena **05/06**

Jokalaria	Puntuak
1. David Morais	73
2. Navarrete	62
3. Iribar	56
4. Guinea	41
5. Arruti	32
6. Loren	28
7. Orue	28
8. Etxabe	23
9. Igartua	23
10. Iker Martinez	22
11. Alex Del Rio	22
12. Kerman	17
13. Arillaga	12
14. Duñabeitia	9

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai Urasandin. Berritzeko. 3 logela, egongela sukaldia, komuna. **677 772 920**
- ▶ Etxea salgai Madalan. 2 logela, garajea eta trasteroa. **678 93 92 41**
- ▶ Etxea salgai Sigman. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Egoera onean. **607 253 909**
- ▶ Pisu salgai Merkatu Plaza alboan. Logela bat, egongela, komuna, sukaldia eta ganbara itxia. Bizitzera sartzeko moduan. **943 74 15 96/677 389 601**
- ▶ Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berritua. 168.200 euro. **943 74 84 48/636 57 11 11**

ALOKAIRUA

- ▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **943530162/628299628 (Katherine)**
- ▶ Luz Saint Sauver-en 4-5 pertsonentzako apartamentua alokatzen da uztaila eta abuztuan. Asteka. **626 453 056**
- ▶ Etxebizitza alokatzen da erdialdean. Pisu berria. Igogailua, bi logela. **943 20 30 83**
- ▶ Gasteizen pisua osatzeko lagun bat behar da. Ondo kokatua, egoera onean. **945 27 42 83 (mezua laga)**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garaje itxia alokatzen dut San Roken, Telefonica inguruan. **600 64 84 94**
- ▶ Garajea alokatzen da Pista Beltzean. Kotxea eta motorra kabitzen dira. 55 euro. **659 38 64 03**
- ▶ Ermuaranbide 7an garajea salgai. **699 45 29 98**

[AUTOAK]

- ▶ Fiat Ulises autoa salgai. 97. urtekoa. Merke. **677435125 (Aitor) 617032938**
- ▶ Volkswagen Golf TDI autoa salgai. 102 zaldi. 2005ekoa. 22.000km. Egoera oso onean. 2007ko maiatzera arteko bermea. **665723540/615765515**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Mendiko bizikleta salgai. Canondale. Egoera onean. Rebisioa pasatuta. Karbonozko manilarra. **658 74 32 49**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Kamarera esperientziaduna behar da asteburuetan. **943 12 12 62**
- Neska arduratsua Mendaroko Ospitalean gaixoak zaintzeko prest. Esperientziaduna. **609286065**
- Neska garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko prest. **666 814 916**
- Emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Egunez eta gauzez. **943 74 44 33 (Kontxi)**
- Mutila lanerako prest: kamarrera, igeltsero laguntzaile... **699 800 498**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduz, garbiketa lanak... orduka edo interna moduan. **646235195**
- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduz, garbiketa lanak... orduka edo interna moduan. **943 53 19 03**
- Neska gaztea lanerako prest. Uztailetik aurrera. Garbiketa lanak, kamarera, sukaldari laguntzaile... esperientziaduna. **666 032715**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Egunez edo gauzez. Orduka ere bai. Esperientziaduna. **943 17 28 96 (Mertxe)**

- Neska gaztea lanerako prest. Abuztuan nagusiak zaintzeko prest. **686 23 47 86**
- Emakumea garbiketa lanerako prest. Lantegiak, lokalak, etxeak... **639 42 34 93**
- Mutila edozein lan egiteko prest: obrak, mekanika lanak... **685 785 921**
- Emakumea lanerako prest: garbiketa lanak, umeak edo nagusiak zainden. **943 74 03 67**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. **685 730 604**
- Neska gaztea lanerako prest: kamarera, umeak edo nagusiak zainden... **638 716 987 (Patricia)**

ESKAINITZA

- Euskaraz dakien pertsona behar da bi ume zaintzeko ekaina, uztaila eta irailean. **685750083 (20:00etatik aurrera)**
- Sukaldaria behar da taberna batean pintxoak egiteko. Goizez. **670 250 429**
- Kamareroa behar da. **943 74 16 00**
- Durangoko Berbaro Euskara Elkarteak udalekuetarako aisialdiko begiraleak eta zuzendariak behar ditu. Uztailerako. **94 620 19 18 (Rakel)**
- Alemaniako herri batean lan egiteko au-pair bat behar da. Bi ume

- zaintzeko, 2-3 hilabeterako (luzatzeko aukera), berehala hasteko. **943 74 14 61**
- Kamareroak eta sukaldariak behar dira taberna lan egiteko. **652 778 260 / 652 77 82 10**
- Kamareroa behar da tabernarako. **943 74 12 30**
- Kamareroa behar da taberna lasai batean lan egiteko. Adinak ez dauka garrantziarik... **669 09 60 71**



- Bergarako enpresak **kamioiko garabiko gidaria** behar du. Erref. 162006004926
- Deba enpresak **zenbakizko kontrol-dun makinarako programatzailea** behar du. Erref. 162006004904
- Zumaiako enpresak **harrerarako langilea** behar du. Erref. 162006007494
- Zarauzko enpresak **jantzi dendarako langilea** behar du. Erref. 162006004105
- Eibarko enpresak **elektrikaria** behar du. Erref. 162006005421
- Zarauzko enpresak **kamareroa** behar du. Erref. 162006005678

- Eibarko enpresak **ospitaleko garbiketa irakaslea** behar du. Erref. 162006007450
- Bergarako enpresak **banatzailea** behar du. Erref. 162006007331
- Eibarko enpresak **soldatzaile elektrikoa** behar du. Erref. 162006007155
- Azkoitiko enpresak **kalitate kontrolerako arduraduna** behar du. Erref. 162006006833
- Mutrikuko enpresak **muntatzaileen taldeburua** behar du. Erref. 162006005308
- Azkoitiko enpresak **pintorea** behar du. Erref. 162006006539

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentzura deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

- 1951koen kinto bazkaria ekainaren 17an izango da Sigma jantetxean. Interesatuek 60 euro sartu ondorengo kontu korrontean **3035 0007 260071037383** ekainaren 5erako.
- Klarinetea galdu dut. Maleta eta guzti. Plaza inguruan. **943 74 10 77 - 943 74 17 43**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Alex** atzo urte-xo bat egin zenuelako. Txokolatezko muxu bat ikastolako laguntxoan eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Sara** zure 1. urtebetetzean. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Asier** ekainaren 2an 2 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Asier** ekainaren 5ean 3 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Igor** atzo 4 urte egin zenituelako. Unai eta gurasoen partez.



▶ Zorionak **potxolal** Garazi, muxu asko ikastolako lagun guztien partez. Muaaaaa!



▶ Zorionak **Maialen** ekainaren 6an 10 urte egin zenituelako. Etxekoan eta anai Aritzen partez.



▶ Zorionak tío **Joanes** eta 19.000 muxu!



▶ Zorionak **Ibare** ekainaren 14an 11 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez, egun ona pasa!



▶ Zorionak **Maialen** bihar 3 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Ane** hilaren 11n 10 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **aitaxo** zure urtebetetzean. Sandra eta Amandaren partez.



▶ Zorionak **Paulo** zure 6. urtebetetzean, txapeldun! Laztan mordo bat denon partez.



▶ Zorionak **Asier** astelehenean 11 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Nekane eta Maialenen partez.



▶ Zorionak **guapisimaa** bihar 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.




▶ Zorionak **Miren** ekainaren 14an 9 urte egingo dituzulako. Ondo pasa Mari Tomasa.



▶ Ekainak 4ko eguna polita izan zen **Joanel** Muxu handi bat eta pazientzia Sararen bihurrikeriekin.



▶ Zorionak **Paula** igandean 5 urte egingo dituzulako. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **bikote!** Azkenean iritsi zaizue eguna. Familiako guztien partez, oso ondo pasa!



▶ Zorionak **pareja!** Heldu zaizue eguna zuei ere bai! Ondo pasa eta zoriontsuak izan. Lagunen partez.



▶ Zorionak **Leire eta losu** 6 urte egin dituzulako. Mikelen partez muxu handi bat.

Zerbitzuak

[OKINDEGIA]



11 igandea FOTERO



[FARMAZIAK]

- GUARDIA** 24 ORDUZ
- 9 Etxeberria (*Santa Ana*)
10 Fernandez
(* *Goizez Yudego*)
11 Fernandez
12 Yudego
13 Zabaleta
14 Etxeberria (*Errosario*)
15 Ibañez
16 Bidasolo

* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebaren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

TRINITAE JAIK EGITARUA

Ekainak 10 (zapatua)

10:00 Trinitateetako V.
Azoka Berezia Leku Eder
parkean eta Plaza Txikian

10:30 Umeentzako Tenis
Jaialdia

11:00 Elgoibar, Eibar eta
Azpeitiako Musika Esko-
letako trikitilarien kalejira

12:00 E.H.ko Trikitixa
Elkarteko kideen kalejira.

Tapia eta Leturia, Zendoia,
Epelde eta Lutxurdio, Laja
eta Izer, Epelarre, Gema
Sistiaga, Baltzola anaiak, A.
Jainaga, Landakanda,
Harana, Ostolaza, e.a.

13:00 Idi-dema erakustal-
dia Nafarroa plazan.
Debemenek eta Udalak
antolatuta

13:00 "Gelaxo" liburuaren
aurkezpena Udal Areto
Nagusian. Haritz EDTren
saioa

17:00 Inazio Bereziartua
Musika eta dantza
Eskolako ikasleen jaialdia,
Txistulari Taldeak eta Haritz

EDTren laguntzarekin, Plaza
Handian (euria izanez
gero, Kiroldegian)

Jarraian, Erraldoi eta
buruhandien kalejira Bal-
tzola anaiak trikitilariekin.

24:00 Nagusien
Tanborrada, Udal Musika
Bandak lagunduta

Ekainak 11

TRINITATE EGUNA

09:00 Diana, Udal Txistulari
Taldearekin

09:00 Ehiza Txakurren
Lehiaketa Larraskandako
zelaietan, La Union-en
eskutik

10:30 XI. Artisau Azoka,
Leku Eder parkean

11:00 Meza Nagusia,
Parrokiko Abesbatzaren
laguntzaz

12:00 Haurren Tanborrada,
I. Bereziartua Musika eta
Dantza Eskolaren laguntzaz

17:30 Erraldoi eta
Buruhandien kalejira,
Elgoibarko Dultzaineroekin

Malape taberna
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

© Malape
Elgoibar, 741945

URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Liberty
Aseguruak

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



UDALEKUETAN LAN EGITEKO BEGIRALEAK BEHAR DIRA

- Udaleku irekiak: ekainaren 26tik uztailaren 21era
- Interesa baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 74 16 26 (Nagore) - E-posta: nagore@elgoibarkoizarra.com
Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte - Ubitarte 4, behea

[9 BARIXAKUA]

19:00 HERRI ESKOLAKO JAIALDIA

Herriko Antzokian

20:00 EUSKAL PRESOEN ALDEKO ENKARTELADA

King-Kong-en

20:30 TRIKIPOTEOA

BERTSOLARIEKIN

Bertsolariak: Alaia Martin, Uxue

Alberdi eta Arkaitz Estiballes

Antolatzailea: Madalako Jai

Batzordea

22:00 PILOTA JAIALDIA

Ikastolako frontoian

Lagunak - Arrasate (Kadeteak)

Lagunak - Eibar (Jubenilak)

Profesionalak:

Mikel Goñi - Olanar // Ubera II -

Zezeaga

Antolatzaileak: Udal Kirol

Patronatua eta Lagunak Pilota Eskola

22:30 KONTZERTUA

Taldeak: "K104" eta "Dejabu"

Madalan

Antolatzailea: Madalako Jai

Batzordea

[10 ZAPATUA]

11:00 EHNA TRAMITATZEKO

MAHAIAK

Plaza Handian

Eraman beharrekoak: 3 argazki,

Udaleko padroia eta 15 euro

23:00 KONTZERTUA

Taldea: "Beste Bat"

Maalan

Antolatzailea: Maalako Jai

Batzordea

22:00 TRISKA DANTZAREN

KURTZO BUKAERAKO JAIALDIA

Mendaroko Goñati Pilotalekuan

[14 EGUAZTENA]

19:00 "EMAKUMEAK ETA

SORGINKERIA" HITZALDIA

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Antolatzailea: Biluzik Sexologia

Zerbitzua

[16 BARIXAKUA]

17:30 TIRIKIKONTU-KONTARI

TXOTXONGILO IKUSKIZUNA

2-6 urteko haurrei eta hauen

gurasoei bereziki zuzendua

Taldea: Gorakada

Herriko Antzokian

Kiribilka programaren barruan

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19:00 EGUR TAILERREAN

EGINDAKO LANEN

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Ekainaren 30era arte

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Plan Oscuro»

9, barixakua: 22:15

10, zapatua: 19:30-22:15

11, domekia: 19:30-22:15

12, astelehena: 21:30

«Instinto Basico 2»

16, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«ElCodigo Da Vinci»

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:45-22:30

11, domekia: 17:00-19:45-22:30

12, astelehena: 19:30-22:15

13, martitena: 19:30-22:15

14, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Bajo Cero»

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:30-22:15

11, domekia: 17:00-19:30-22:15

12, astelehena: 19:30-22:15

13, martitena: 19:30-22:15

14, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litekeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

SINOPSISIAK

«Plan oscuro»




Zuzendaria: Spike Lee.

Antzezleak: Denzel Washington, Jodie Foster.

Imajinatu daitekeen modurik sinpleenean, pintorez jantzita sartuko dira lau lagun Wall Street ezaguneko Manhattan Trust bankuaren sukurtsalean. Segundu apur batzuk nahikoa izango dituzte denbora luzez garatutako plan perfektua aurrera atera eta 50 lagun bahitzeko. Gisa honetako kasuetan trebatutako New Yorkeko bi polizia izango dute bahitzaileen liderrarekin kontaktuan jartzeko ardura. Egoerari erraztasunez buelta emango diotela sinistuta daude, baina bahitzaileak uste zutena baino adimentsuagoak dira.

Atzera hegira



1976. urte inguruko erretratu zahar hau **Anton Bergarak** laga digu. Trinitate jaietako tanborradako argazkia da, eta Anton bera ikusten dugu zuzendari lanetan. Herriko gazteenek akaso pentsatuko dute tanborradak Elgoibarren ez daukala aspaldiko tradizioirik, baina erretratu honetan ikusten den bezala, Trinitateetako tanborrada aspalditik ospatzen da. Urte askoan galduta egon bazen ere, duela zenbait urte berreskuratu zen berriro nagusien tanborrada, eta aurten, lan handia egin dute ekitaldi honek merezi duen indarra emateko. Trinitate jaietan murgilduta gaudenez, aproposa iruditu zaigu argazki hau argitaratzea.



ESKERTZA

2006ko ekainaren 3an hil zen
Jose Manuel Lazaro baster *Badiola*ren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

Ego Gain, 4 behea


(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

ALTZOLA



- 3 logelako etxebizitzak terraza zabalekin.
- Duplex-ak.
- Toki lasai eta loretsua.
- Lehen urteko aseguru dohainik.

ERROSARIO KALEA




- Azken etxebizitzak.
- Abuzturako bizitzera sartzeko moduan.

ALBOKUAK INMOBILIARIA

Errosario, 12 - Tel.: 943 74 06 73 / 670 41 20 73 - E-posta: albokuak@euskalnet.net

IBAIHAUNDI PROMOZIOAK



kutxa

Trinitateak

2006



*Ondo pasa
jaiak!*



*Zorionak
elgoibartar guztioi
Udalaren izenean*



KULTURA SAIALA